



BETERRIKO ALDIZKARIA



# AIURRI

1995eko azaroaren 17a. 24. zenbakia. Dohain banatzen da.




Udazkenean  
ehizara




# *saiakera bilduma dagoeneko salgai*

- 1 Manuel Larramendi: bizitza eta obra*
- 2 Gerra Zibila andoaindarren begietatik*



2.000 pta



1.500 pta

Zure liburudendan eros ditzakezu

*Erne bazkideak: Bazkunean bertan eros ditzakezue!*



KULTUR  
BAZKUNAREN  
ARGITALPENAK



# Aurkibidea

1. **AURKIBIDEA.**  
**AIURRITARRAK**  
J. Larrañaga: Udaltzain prestuak Andoaingoak.
2. **INKESTA.**  
Eta zu, bertsozalea al zara?
3. **ADUNA.**  
Zerga berrien nondik norakoak.
- 4-5. **ANDOAIN.**  
Zergek, tasek eta prezio publikoek gora.  
Diputazioko kultura arduraduna herrian.
6. **ASTEASU.**  
Autobus urdina.  
Herriko mapa egin dute.
7. **BILLABONA-AMASA.**  
Organoaren inagurazioa.  
Eskola mapa berriaren ondorio txarrak.
8. **ZIZURKIL.**  
El Salvadorreko lagunak herrian.
9. **ENPRESA**  
Giza baliabideak egungo enpresetan.
- 10-11. **ERREPORTAIA.**  
Ehiza sasoiak amaitzeak.
- 12-13. **KIROLA.**  
Billabona: Txirringarritza profesionala aztergai.
14. **ERRETRATU ZAHARRA.**  
Billabonako Loatzo mendi taldea. 1965.
15. **ZE BERRI? / LEHIAKETA.**
16. **AGENDA.**

**Argitaratzailea:** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31  
**Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia.  
**Erredakzioa:** Antxiñe Mendizabal, Amagoia Mujika, Ainhoa Oiartzabal **Argazkiak:** Manu Mujika **Komikia:** Iñaki G. Erro. **Publizitate arduraduna:** Mailu Ibarbia.  
**Banaketa arduraduna:** Iñosen Mujika.  
**Administratzaile-eragilea:** Kepa Sarasola.  
**Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati).  
**Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 **ISSN:** 1134-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

**OHARRA:** Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



# Aiurritarrak



JONE LARRAÑAGA

## UDALTZAIN PRESTUAK ANDOAINGOAK

Gogoan dut nola umetan parke zaharreko pinuetan zinbuluka genbiltzan auzokoak. Orduko hartan munizipalek Kaleberriko egunkari saltzailearen ondoan zuten "koartel nagusia", eta bizilagunen batek abisua emanda edo, parkera igo eta identifika gintzen eman gintuzten, beldurrez akatuta. Ez dakit izenik ere hartu ziguten, baina itxura hori egin zuen bigotedun muxu-gorriak ordutik fitxatuta egongo ginela edo sinestarazi nahian.

Esperientzia haren arrasto psikologikoak badituz oraindik. Hori izango da. Herriko udaltzainak ikusten ditudan ia guztietan amorrua pizten baitzait barruan. Gutxitan ikusi dituztut ganorazko ezer egiten, gutxitan trafikoa zaintzen, gutxitan isunak jartzen, eta askotan sekulako parreak eragin dizkiguten pitokeriak egiten.

Izango dira urte pare bat pasa edo, Santakrutz auzunean -Olagain auzunean barka- etxe bat erre zena. Balkoira atera eta ez dituz ba munizipalak ziztu bizian sirena piztuta hara aldera ikusi! Seko harrituta geratu ginen etxeok: nola, Andoaingo munizipalak istripugunera iristen lehenengoak? Begiak igurtzitzen hasi ginenerako buelta hartua zuten berriz ere udaletxe aldera. Ur ahoa zabaltzeko giltza han ahaztuta utzi zuten.

Horrelakoak hamaika dira andoaindarren artean ezagunak. Horietako zenbait benetakoak edo herritarren irudimenak sortuak izan litezke, baina nik lehenengo aukera horrexen alde egiten dut ba. Herriko banketxe batetik atarian pertsona susmagarri bat ikusi zutela esanez hots egin, eta "bakarrik nago" erantzunez telefonoa eskegi zioten hark bezalaxe. Kultur bazkun honetako bilera zela eta, Kultur Etxera joan eta hango atezaina Manuel Larramendi noiz etorriko zain zegoela esan zioten hark bezalaxe.

Gutxitan ikusi dituzte pulamentuzko ezer egiten. Amorratu egiten naute. Amorratu Kale Nagusian hautsi zen ur hodiak eragindako trafiko arazoak konpondu beharrean, autoei bizkar emanda ezagunekin hitz egiten ari direla topatzeak. Amorratu udaletxe azpiko kaiolatik ia Elizondora bakarrik iristen direla ikusteak. Amorratu...

A portzierto: azaroaren lehenean kanposatuan topatu nituen bi aparkalekua antolatu nahian. Ikasten ari ote dira?



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura sailaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamenduaren laguntza jaso du.



## ETA ZU, BERTSOZALEA AL ZARA?

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa aitzakitzat hartuz, gure inguruan dagoen edo ez dagoen bertsozaletasunari buruz galdetzea pentsatu dugu oraingo honetan. Txapelketagatik ezezik, eskualde honek baduelako ere bertsolari ospetsuak eman dituen ospea, besteak beste, Pello Errota asteasuarra eta Pedro Mari Otaño zizurkildarra.

Zaletasunari buruz, eta baita txapelketei eta bertsolariari egiten zaien jarraipenari buruz ere galdetu dugu. Jasotako erantzunen arabera zaletuak asko direla konturatu gara, jaialdietara joaten direnak ordea, ez hainbeste. Guztiek daukate, alabaina, bertsolariaren bat besteen artean gogokoan.



### JUAN KORTAJARENA, LANGILEA. ASTEASU.

Bai, bertsozalea naiz. Irratiz eta telebistaz entzuten ditut bertsoak. Kortexean noala ere bertso zintak jartzeko ohitura daukat. Hala ere, ez naiz bertso saioetara joaten; ehiza, lana eta beste gauza asko dauzkat bertsoak baino lehen.




### ARANTZAZU OLAZABAL, IRAKASLEA. ANDOAIN.

Gustatzen zaizkit bertsoak. Gipuzkoako Txapelketari ez diot arreta handirik egin. Txapelketetara ez naiz asko joaten. Baina inguruan bertso saioen bat izaten denean joaten naiz. Lehen ikusten nuen Euskal Telebistan Hitzetik Hortzera bertso saioa. Jon Sarasua eta Andoni Egaña dira nik gogokoan ditudan bertsolariak.



### BERNARDO URRETABIZKAIA, JUBILATUA. ZIZURKIL.

Bertsoak irrati entzuten ditut eta oso gustora egoten naiz. Gaur egun txapelketa eta saioetara ez naiz joaten, lehen ordea, joaten nintzen. Bertsolari gustokoenak Uztapide, Baserri eta garai hartakoak ditut, zaharrak alegia.



### OLATZ ALBIZU, IKASLEA. BILLABONA.

Lehen gehiago entzuten nituen bertsoak, eskolan askotan lantzen genituen. Egia esan, ez naiz batere bertsozalea, ez zaizkit bertsoak gustatzen. Inguruko bertso saioetara joan izan naiz, eta baita aspertu ere!



### ISABEL MUJIKA, UDAL ADMINISTRARIA. ANDOAIN.

Bai, gogoko ditut bertsoak. Bertso saioetara gutxi joaten naiz. Inoiz edo behin joan izan naiz. Bertsolari gogokoenak galdetu diogu, eta anoetarra izanik, Angel Peñagarikanoren alde agertu zaigu Isabel, bi aldiz pentsatu gabe.




### JUSTINO ZUBELDIA, MEKANIKOA. ADUNA.

Askok gustatzen zaizkit bertsoak, baina doinua, erritmoa eta antzeko bertso jokoak ez ditut ulertzen. Bertsoa polita izanez gero, txalotu eta kitto. Inguruetako bertso saioetara joateko ohitura badut, baita txapelketetara ere. Bertsolari gazteak oso maila ona erakusten ari dira, nahiz eta gu zaharretara ohituta egon.

**AIURRI** ALDIZKARIAK  
PUBLIZITATE ARDURADUNA  
BEHAR DU

INTERESATUEK DEI TELEFONO HONETARA:  
**30 07 32**



**GOSARIAK - APERITIBOAK  
BILARRA  
GIRO EDERRA!!  
KALE NAGUSIA, 20 - ANDOAIN**





## ZERGA BERRIEN NONDIK NORAKOAK


### URRIAREN 24EAN ONARTU ZIREN TASA BERRIAK

Herritarrek ordaindu beharreko zerga eta tasa berriak zein izango diren aditzera eman nahi izan du Udalak. Igoera gehienak KPI-IPCren (Kontsumo Prezioen Indizea) berberak izango dira. Dena den, hainbat tasek aldaketa nabariagoak izango dituzte eta zerga berri bat ere egongo da.

Ura, zaborra, etxebizitza eta industria dira, besteak beste, aipamena mezezi duten zergak. Uraren prezioa azken aldian asko igo dela kontuan hartuz tasek ere gora egingo dute Udalarentzat zerbitzua defizitarioa baita. Orain arte urak ezer gutxi balio izan du, baina hemendik aurrera bere balioa igo egingo da eta gehiago ordaindu beharko dugu ura. Gastatzen duguna ere gehiago zaindu beharko dugu eta beharrezkoa izango da ura alferrik ez botatzea nahiz behar dugun adina erabili. Etxebizitzetako uraren kasuan %10a igoko da ordaindu beharrekoa eta industrietako ura %5a. Zaborrek %5eko igoera izango dute. Etxebizitzek eta industriek, berriz, berdin jarraituko dute.

#### ZERGA BERRIA

Ordaindu beharreko ohiko zergaz gain berri bat egongo da. Azpiegitura Finantzatze Kanona sortu da Europako arauak direla eta. Europako Elkartek agindutakoaren arabera,



Urak gora egingo du

2005. urterako ibaiak garbitzeko plana eman behar da aurrera eta hori ordaindu ahal izateko erabiltzaile orok ordaindu beharko ditu gastuak. 2005. urterako denbora asko falta bada ere, Gipuzkoako Ur Partzuergoak plan bat egin du, ordainketak bat-batean egin beharrean pixkanaka ordaintzeko. Diru bilketa biztanlearen eta kontsumoaren araberekoa izango da. Era horretara Udala dirua biltzen joango da azken orduan dena ordaindu beharrean egon gabe.

Azpiegitura Finantzatze Kanona uraren erreziboan bertan helduko da, baina bertan argi agertuko da bi zergak berezita egongo baitira.

Albañileria  
**USABIAGA**

Leku - Ona Etxea, 2 - Iharza auzoa  
Tel. 69 35 60 - 69 34 35  
**20150 ZIZURKIL (Gipuzkoa)**



**BORDA**  
*Jatetxea*

A N D O A I N



**ALOTZ**  
IZOZKINAK

Kaleberria, 9 - ☎ 59 07 06  
ANDOAIN

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

**KIROLAK**  
**EDURNE**

KALETXIKI, 6 - ☎ 59 19 58

**ANDOAIN**



**KARROZERIAK**  
**LAGUNAK<sup>SL</sup>**

**TXAPA ETA PINTURA**

EGA ZERBITZU OFIZIALA  
FURGOI ISOTERMIKOAK  
HOZKAILUAK

SORABILLA AUZOA - 53. POLIGONOA - ☎ 59 44 48 - ANDOAIN





## ZERGEK, TASEK ETA PREZIO PUBLIKOEK GORA EGIN DUTE

- ✓ JOXE RAMON KARRERA, HBKO ZINEGOTZI BERRIA
- ✓ 1995EKO AURREKONTUARI ONESPENA

Andoaingo azkenengo Udaltzazak, besteak beste, honako erabaki hauek hartu zituen: 1995eko aurrekontuaren onespena HB eta IU-EBren ezezkoa eta PPren abstentzioa jaso ondoren; zerga eta

prezio publikoen igoera haurtzaindegia-ri dagokion igoera mahai gainean utziz; eta Aritz Arnaiz HBko zinegotziak bere karguari uko egin ondoren, Joxe Ramon Karrere zinegotziaren izendapena.



### JOXE RAMON KARRERA ZINEGOTZI BERRIA



Herri Batasunak zinegotzi aldaketa gogo txarrez egin duela adierazi zuen, bere esanetan Aritz Arnaizi bere kargua betetzeko eskubidea ukatu egin zaiolako eta Udal agintariak ez dutelako ezer egin. PSE alderdiko Eloi Artolazabalek saioak egin direla erantzun zuen, hau da epaitegi gorenean eskariak egin direla, baina beti eman zaiela ezetza Aritzek ez duelako Udalaren eguneroko ihardu- nean parte hartzen. HBk, hala ere, saioak gezurrezkoak izan direla leporatu zion talde hirukoari, Udal batzarrean parte hartzeko eskaria gutxienez, batzarra izendatu baino hilabete lehenago egin behar izaten delako, eta egin ez delako.

1995eko aurrekontua onartu du Udalak HBren eta PPren ezezkoarekin. Talde hirukoitzak aurrekontua baino gehiago, aurrekontuaren likidazioa dela onartu du ia urte amaieran aurkeztutako hau, eta 1996koa urte honen amaieran edota urtarri- lean aurkeztuko duela aurreratu du, hala nola gobernu taldearen egitaraua eta asmoak bilduko dituen aldizkaria.

Aurrekontua diru sarreren eta irteeren egokitzapena besterik ez dela onartu zuten alderdi guztiek, eta talde hirukoak agintean dauden hiru hilabeteetan aurreko legeal- diko aurrekontuarekin ezer gutxi egin ahal izan duela aitortu zuen. Alkateak 1.236 milioiko aurrekon- tuan egin den 55 milioko aldaketa- ren azalpena egin zuen lehenengo eta behin: 42 milioi zaharren egoi- tzari dagozkio, eta beste 20 milioi ur partzuergoan sartzeak ekarri duen diru beharraren ondorio izan da.

EAJ-PNV alderdiak era berean, aurrekontua bere garaian onartu ez izanaren erantzukizuna baten ba- tena badela adierazi zuen, eta be- raiek otsailean aurrekontuak egitea proposatu zutela. "Inongo be- rrikuntzarik ekartzen ez duten au- rrekontuak dira", adierazi zuen Garbiñe Egibarrek, "hurrengo ur- teko aurrekontuak ausartagoak iza- tea espero dugu". EAK urte hasie- ran HBrekin sinatu zuen aurrekon- tuak orduan agintean zegoen PSE-

ri zegokion aurrekontua aurkezte- ra bultzatu zuela adierazi zuen.

#### "USAIN TXARREKO AURRE- KONTUA"

HBk ezezkoa eman zion aurre- kontuari: "Pilar Collantesen legeal- diaren usain txarra dario aurrekon- tuari", adierazi zuen HBko J.J. Pe- trikorenak, eta gestio txarra eta plangintza eza leporatu zion or- duko eta egungo gobernu taldeei. Hala nola HBk EArekin batera si- natutako aurrekontua aurkeztu zu- tela. Zaharren egoitzak eta ur par- tzuergoak sartzeak ekarri duen gailuzko omen dira gestio txarra- ren adibide. EAKo Joxe Mari Orma- zabalek erantzun zion HBri, plan- gintza eza ukatuz, orain dela hiru urte ba omen zekiten aurten kostu berri horri erantzun beharko ziola Udalak.

PPk eztabaida luze horri dema- gogia deitu zion. Hala ere, aurre- ko legealdiko gobernu taldearen gestio eza nabarmena zela esan zuen.





## ✓ HAURTZAINDEGIKO PREZIOAREN IGOERA MAHAI GAINEAN UTZI ZEN

## ✓ MUSIKA ESKOLAKOAK, UZTAILEAN BERRIKUSIKO DIRA

EAJ-PNVko Garbiñe Egibarrek igoeraren arrazoiak argitu zituen: bate-tik inguruko herrietako kopuruetera egokitzea. Eta bestetik, legeak agindu bezala, herritarrengandik jasotzen diren zergen bitartez Udalak eskaintzen dituen zerbitzuen kostua osatzea oraingoz ezinezkotzat jotzen denez, %50era iristea, gutxienez. Prezio publikoei dagokienez helburua berbera izanik, kasuan kasuko egoerak aztertu behar direla adierazi zuen. Haurtzaindegia eta musika eskola zerbitzuetan, adibidez, gurasoen ekarpenen bitartez kostuaren herena eskuratzea proposatu zuen gobernu taldeak hasieran. Baina, azkenean, haurtzaindegiko prezio publikoak mahai gainean uztea proposatu zuen Eusko Jaurlaritzak haurtzaindegiak hezkuntza sarean sartzeko agertu duen nahia zertan den argitu arte.

Maxen Zinkunegik "paradisu fiskaltzat" jo zuen Andoain, eta Gipuzkoa mailan bilketa fiskala txikienetakoa egiten den herria dela adierazi zuen. Neurria inoren gustokoa ez izan arren, horretarako beste arrazoirik ere ba omen

dago: "Zenbat eta gehiago bildu, orduan eta Diputaziotik diru gehiago jasoko dugu, eta asmo berriak burutu ahal izango ditugu".

Jose Antonio Pérez Gabarain alkateak uraren igoeraren arrazoia argitu zuen bereziki: "Ur partzuergoan sartu izanak kostuak asko igo ditu. Ordainetan azpiegitura zerbitzu berriak lortuko ditugu". 2001 urterako Andoainen ur kolektoreak eta depuradora ezarriko direla argitu zuen. Bestalde diru sarrerak handitzeko Udal ondasunen batzuk saltea aurrikusi dutela adierazi zuen.

### EZADOSTASUNA

HBk tamaina horretako igoeraren arrazoia orain arteko plangintza ezaren ondorio dela adierazi zuen: "Udalen akatsen ordaina ezin da herritarren gain utzi". Bestalde, gobernu batzordearen proposamena aztertzeke denbora motzegia izan zutela kritikatu zuen.

PPko ordezkariak proposamenaren zentzugabekeria adierazi zuen behin eta berriro: "Ezinezkoa zait proposamenari buruzko iritzirik ematea, ez baititut gobernu taldearen ez egitaraua ezta 1996ko aurrekontua ere ezagutzen".

## DIPUTAZIOKO KULTURA ARDURADUNAK HERRIAN

Koruko Aizarna, Kultura eta Euskara diputatuari eta euskara saileko zuzendari den Xabier Huizi andoaindarrari azaldu zieten bileran Jose Antonio Pérez Gabarain alkateak eta Xabier Huizi, Garbiñe Egibar, Maxen Zinkunegi, Joxe Mari Ormazabal eta Gabino Agudo zinegotziek herrian kultura alorrean dauden beharrak eta lehentasunak.



Kixmi erakusketa ikusi zuten lehenik

Lehenengo eta behin, Kultur Etxean La Salle-Berrozpe ikastetxean bere 50. urtebetetzea dela eta, antolatutako ospakizunen artean antolatutako "Kixmi" erakusketa bisitatu zuten. Udal liburutegian izan ziren ondoren. Dena den, Udal zinegotzien eta Diputazioko arduradunen arteko eztabaidagairik garrantzitsuen Basteroko kultur aretoaren proiektua izan zen. Diputazioko kultura arduradunak 1997ko aurrekontuei begira, proiektua kontuan har daitekeela adierazi zuen, izan ere Andoaingo kultura arloko azpiegitura faltaz jabetuta zegoela adierazi zuen.

## ZERGEN, TASEN ETA PREZIO PUBLIKOEN IGOERA PORTZENTAIETAN

### ZERGA K

<i>Ibarduera ekonomikoak</i>	%11
<i>Hiri eta lur ondasunak</i>	% 7
<i>Nekazal zerga</i>	% 1
<i>Ibilgailuak</i>	% 7
<i>Eraikuntza zerga</i>	%4'5
<i>Baserrien konponketa</i>	%2

### TASAK

<i>Zaborrak</i>	%30
<i>Hirigintza lizentziak</i>	% 7
<i>Hileta zerbitzuak</i>	%15

*Nitxoa 10 urtez*

**35.000 pezeta**

*Handik aurrerako nitxo txikia*

**65.000 pezeta**

*Errausketa*

**40.000 pezeta**

*Autotaxia:*

*Lizentzia berria eta jabetza*

*aldaketa 25.000 pezeta*

### PREZIO PUBLIKOAK

<i>Ura</i>	%10 +19 pezeta m3ko
<i>Musika eskola</i>	%30 (uztailak 20ra arte)
<i>Haurtzaindegia</i>	<b>Erabakitzeke</b>
<i>Zabarren egoitza</i>	<b>82.000 pezeta hileko</b>
<i>Bide publikoaren okupazioa</i>	%7
<i>Kiroldegia</i>	%5 - %11

## 46KO KINTOEN DEIALDIA:

Abenduaren 3an izango den mezara eta bazkaria gonbidatuta daude Beterriko 46ko kinto guztiak. 12.30etan izango da meza Andoaingo San Martin parrokiaren hildakoen alde, eta ondoren Borda jate-txean bazkaria. Izena emateko deitu bi telefono hauetara: 59 20 43 eta 59 14 45 18.30-20.00 orduak bitartean.





## AUTOBUS URDINA

### GIPUZKOAKO IKASTETXE GUZTIETAN

Urri bukaeran izan zen autobus urdina Pello Errota ikastetxean. Bostgarren eta seigarren mailako ikasleak igo ziren bertara, hamabost ikasle guztira. Bideo bat ikusi eta behin erabilitako gauzak nola berrerabil daitezkeen ikasi zuten. Ondoren birziklapenari buruzko ipuin bat entzun zuten.



Haurrak ipuina entzuten

Askotan, orri batean zirriborro bat egin eta bota egiten dugu; beste batzutan berriz, alde batetik bakarrik erabiltzen dugu. Joera hori eta beste asko konpontzeko burutu dute ekimena; ingurugiroa zaindu, zaborra gutxitu eta finen, materialak era egokian erabiltzeko. Bideoan azaldutakoaz gain, autobu-

sean, berriro erabilitako paper eta material ugari ikusi zuten. Hori guztiarekin, ikasleak gauzak berrerabiltzera bultzatu nahi dituzte.

Abenduan birziklapenari buruzko lehiaketa dago Gipuzkoako ikastetxeen artean, eta bertan parte hartzera animatu zitzaizen asteasuko ikasleei.

## HERRIKO MAPA EGIN DUTE

Hilaren zazpian eginiko prentsaurrean aurkeztu zuen Imanol Goikoetxea geografoak egin berri duen Asteasuko mapa. Bertan, herriko bide, ibai eta bailarak agertzen dira. Txokoen jatorrizko izenak zein egungoak zehazten dira eta kaleko mapa ere agertzen da. Bukaeran, herriko baserri guztien argazkiak daude.

Mapa erakargarria da, kolore ezberdinez irudikatua eta erraz ulertzen dena. Imanol Goikoetxeak mapa praktikoa egin nahi izan du, "herritarrek erabil dezaketen". Hori lortzeko, herriko komunikazio sare guztia irudikatu du; errepideak, baserri bideak, herri barruko bideak e.a. Bestalde, Asteasuko toponimoak aztertu eta kokatu ditu, urteetan zehar aldatuz joan direnak edota berdin jarraitzen dutenak. Horretarako, baserriaren laguntza eta agiri zaharren laguntza izan du. "Lekuaren jatorrizko izenarekin batera, egun leku berak duen izen berria edo moldatua jarri dut" esan digu Goikoetxeak hirurehun toponimo inguru kokatzeko utzi dituela gaineratuz eta lan hori herritarren esku uzten duela aipatuz. Azkenik, egungo baserri guztien argazkiak agertzen dira mapan eta, geografoaren esanetan, etorkizunerako baliagarria izango dela uste du urte honetako baserri kopurua eta duten itxura gogorarazteko.

### ODOL EMATEA KULTUR ETXEAN

Azaroaren hogeita hiruan bilduko dira Kultur Etxean odolemailak. Arratsaldeko zazpikatik iluntzeko bederatziak arte joan behar dute odola eman nahi duten herritarrek. Egun, berrogeita hamar lagun inguruk ematen dute odola.

### ALKATEAREN ORDUTEGI BERRIA

Hemendik aurrera, asteartetan eta ostegunetan egongo da alkatea udaletxean. Goizeko bederatzietatik eguerdiko hamabiak arte beren zerbitzura izango dute herritarrek Iñaki Amenabar alkatea. Bestalde, kontestagailu automatikoa jarri dute udaletxean eta beraz, orduz kanpo mezuren bat utzi nahi izanez gero deitu 691907 telefonora.

# Lirawna

## KIROL JANTZIAK

Ama Kandida etorbidea, 6  
Posta kutxatila 110 - ☎ 59 44 47  
ANDOAIN



## Altzariak

KALETXIKI, 6 ANDOAIN  
FAX ETA TELF. 59 07 61





## ORGANOAREN INAUGURAZIOA

### ADALBERTO MARTINEZEK ORGANO BERRIAREN LEHENENGO NOTAK JO DITU

1919ko abenduan egin zuten organoa Azpeitin eta Billabonako parrokiak 50.000 pezetatan erosi zuen, mailegu asko behar izan bazituen ere ordaindu ahal izateko. Hala ere, denboraren poderioz organoa bere egitekoak galtzen joan zen eta pipiaren jan bilakatu zen. Beraz, denbora batean organoaren soinua isilik egon da, hala ere ez betirako, duen balorea kontuan hartuz, konponkenta lanak hasi baitziren.



Adalberto Martinez Solaesa inaugurazio egunean

Sistema magnetikoa aldatu eta elektrikoa jartzea izan da berrikuntza. Horrekin batera, pipiak jota zeukan egurra kendu eta berria jarri zaio eta lehendik ondo zeuden zatiei pipiaren aurkako tratamendua eman zaie. Teklatuak ere aldaketa asko izan ditu sistema berriari egokitu ahal izateko.

Urriaren 28an Jesusen Bihotza Parrokian lehenengo aldiz organo berriaren doinua entzuteko aukera izan zen. Adalberto Martinez Solaesa organojole apartak izan zuen horretarako ohorea. Oso gustora jo ere, bere esanetan eta soinuk kalitate handia baitu. Eliza ia beterik egon zen inaugurazio egunean eta jendea oso gustora egon zen organo eta organojolearen prestutasuna ez baitziren nolana-hikoak izan.

### PARROKIAKO UDALEKUEN 25. URTEMUGA

Jesusen Bihotza parrokia duela 25 urte haurrentzat udalekuak prestatzen hasi zen eta orduz geroztik haurrek urtero leku ezberdinetara joateko aukera izan dute. 25 urte horiek ospatzeko ekintza asko antolatu dira azaroaren 13tik 19ra bitartean.

Argazki erakusketa bat izango da eta bertan 25 urte horietan izandako haurren argazkiak egongo dira ikusgai. Azaroaren 15ean "Udaleku bat Parrokiaren antolaketan" hitzaldia egingo da eta Jose Ramon Trebiño izango da hizlaria. 16ean mahai-inguru bat egingo da eta bertan udalekuen historian izan diren nondik norakoez hitz egingo da. Garai ezberdinetan udalekuetara joandako jendeak parte hartuko du. Hilaren 17an diapositiba emanaldia egongo da. 18an eguerdiko 12etan bertan egondakoekin meza izango dute eta ondoren bazkaria. Azken egunean Amasa inguruan mendi irteera egongo da.

### ESKOLA MAPA BERRIAREN ONDORIO TXARRAK

#### DATORREN URTEAN 7. MAILA EGITERA KANPORA JOAN BEHARKO DUTE HAURREK

**Denbora gutxi barru, Eskola Mapa berria indarrean jarriko da. Egitura berriari kasu eginez Billabona eta inguruetak hainbat herritako 12 urtetik gorako haurrek Tolosara joan beharko dute ikastera. Fleming eskolako Guraso Elkarteak deialdia zabaldu nahi die gurasoei hori gertatu baino lehen zerbait egiten hasteko.**

12 urtetik aurrera herria utzi eta kanpora ikastera joan beharrak haur horien ingurunea aldatzea ekarriko luke gurasoen ustez. Eskola ikasteko gunea baino zerbait gehiago dela kontuan hartuz, haur horien sozializazio gunek aldaketa izango luke.

Bailara osoak jasango ditu mapa eskolarraren aldaketak. Billabonaz gain, Zizurkil, Aduna, Alkiza, Asteasu eta Erniobeko haurrek ere Tolosaldera joan beharko dute datorren urtetik aurrera.

Guraso Elkarteak aurre hartu dio gerta daitekeenari eta proposamenak luzatzen ari dira. Herrietako Udalekin

harremanetan jarri dira. Billabonako Udalak baiezkua eman dio Gurasoen Elkarteak egindako proposamenari eta laguntzeko prest agertu dira Hezkuntza Sailarekin akordio batera iritsi ahal izateko. Gainontzeko Udalek ere bide berbera hartzea espero dute gurasoek.

Udalen ardurez gain, behar-beharrezkoa da gurasoek ere arazo honen gaineko arduraren hartzea elkartearen ustez. Batzorde bat eratu dute eta guraso guztiei deialdia zabaldu nahi die bertan parte hartu eta lan eginez haurrak bailaran ikasten gera daitezten 14 urte bitartera arte.





## EL SALVADORREKO LAGUNAK HERRIAN

NICOLÁS GARCÍA ALFARO: "EZINBESTEKOA DUGU LAGUNTZA INTERNAZIONALA"

Hilaren zazpian Tecoluca hiriko -El Salvador- alkatea, Nicolás García Alfaro, eta Emilio Espín izan genituen Zizurkilen. "Hirugarren mundua eta bakea" izenean Hego Euskal Herrian eta bereziki Gipuzkoan hainbat bisita egin dituzte. Zizurkilgo bisita ordea, herriak El Salvadorri ematen dion laguntza eskertzeko izan da.

Udaletxean eman zieten ongi etorria herriko alkate eta zinegotziek, Tolosaldeko beste herrietako Udal agintariekin batera. Izan ere, Euskal Fondo erakundeko partaide da Zizurkil, eta gogoan izan Segundo Montesekin herrikidetuta dagoela, El Salvadorreko garapen ekonomiko-soziala bultzatzen lagundu duelarik.

### LAGUNTZA BEHARREAN

1992an FMLN eta Gobernuaren artean hartutako akordioak poliki eta traba handiz ari dira betetzen. Ondorioz, osasun zerbitzuak, eskolak eta beste zenbait zerbitzu eskaintzeko arazoak dituzte. Nicolás García, FMLNko alkatea dugu Tecolucan: "Herrialde garatuetako laguntza behar-rean gaude gure biziraupena ziurtatzeko" adierazi du. Emilio Espínek berriz, "herritarrak duintasunez bizitzeko garapena bultzatu nahi dugu" esan digu, gaur egun ur edangarria eta argia ezartze lanetan daudela gaineratuz.



Zizurkilen laguntza eskertu zuten

### "ERNIO BEHEA INFORMATZEN" JADA KALEAN


Ernio Beheko gizarte zerbitzuak bi hilabetez behin informazio orria banatuko du etxez etxe. Zizurkil, Aduna, Asteasu, Larraul eta Alkiza herrietako zerbitzua da Ernio Behekoa eta orri horren bitartez, zerbitzuak eskaintzen dituen laguntzak eta ekintzak azaltzen dizkie herritarrei.

Azaroan kaleratu dute lehenengo aldiz "Ernio Behea informatzen" orria eta gizarte zerbitzuak eskaintzen dituen laguntzak, ikastaro zein ekintza ezberdinak irakur ditzakegu bertan. Euskara zein erdaraz dago idatzita, orriaren alde bana hizkuntza batez, alegia. Zizurkilen esate baterako, lan-

gabezia dagoen herritar bat hartuko dute orria etxe eta baserri guztietan banatzeko eta beraz, herritar guztiak ondo informatzea da ekimenaren helburua. Orria jaso ez baduzu edota galderaren bat izanez gero, dei ezazue gizarte zerbitzuko 693930 telefonora.

**Orremendi Kirolak**

AUKERA ZABALA  
KIROL ARTIKULUETAN



JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF. 59 18 06 ANDOAIN

**HERCULES**

Aseguruak ARGENTARIA

*Amala Kortajarena*

Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxe 69 37 34  
**ZIZURKIL**



**XIXORI**  
**BELARDENDA**

DIETETIKA ZENTRUA  
KONSULTA NATURISTA

Ondarreta, 9 - TELF. 59 01 99 - 20140 ANDOAIN

**AURRERA**  
**TABERNA**

Girorik ederrena gazteriarentzat!!  
**ZIZURKIL**



## GIZA BALIABIDEAK EGUNGO ENPRESETAN

UNE HAUETAN AZKEN 300 URTEETAKO IRAULTZARIK HANDIENA ARI GARA BIZITZEN

Andoaingo La Salle-Berrozpe ikastetxeak bere 50. urtemuga ospatzeko antolatu dituen hitzaldi saioetako batean egungo enpresetan giza baliabideek daukaten garrantzia aztertu zuten adituek. LKS aholkularitza enpresako Javier Maret, Kepa Zalbide aholkularia eta Prontxio Iriarte enpresa gizona izan ziren hizlariak. Etorkizuneko enpresa modernoan giza baliabideak izango dira, besteak beste, erronka berriei aurre egiteko funtsezko tresna. Enpresariak, nonbait, konturatu dira negozioekin aurrera jarraitu nahi badute langilea ere enpresa proiektuaren partaide egin behar dutela.



*Mikel Balerdi zuzendaria eta hiru bizlariak*

Betidanik ezagutu dugun enpresa jerarkiko erraldoiaren eredu zaharkituta gelditzen ari da, eta konkurrentziari aurre egiteko langileriaren parte hartzea behar duela ikusi du enpresariak. Ez da berez, planteamendu etiko edo morala. Dena den, eta bide batez, langilegoak orain arte jasan duen zapalkuntza egoera leunduko duela pentsatzen dute adituek, eta poliki-poliki enpresari-langile borroka harreman historikoa desagertzeko bidean egun daitekeela.

Enpresaria hasia da bere helburuak lortzeko estrategiaz aldatzen: giza baliabideetan omen dago gakoa. Horrek bestelako prestakuntza, lan sistema eta egitura eskatzen ditu. Prestakuntzak etengabeak izan behar du, elkarlanean lan egin behar da, eta zuzendaritza eta langileriaren artean harremanek beste-

lakoak behar dute izan.

Bestalde, orain arteko beste zenbait kontzeptu ere zaharkituta gelditzen ari dira "enpresa integrala" deituriko horretan: zortzi orduko lana eta bizitza osorako lanpostua, adibidez. Gainera, zenbait eta zenbait lan etxean bertan egingo dira lantegira joan gabe, eta gaur egun gero eta gehiago soldata langilearen eta zuzendariaren artean hitzartzen den gaia da, beti ere lanak emandako fruituen arabera.

### **NOLAKO LANGILEA**

Nolako enpresa, halako langilea. Hizlariak enpresa modernora egokitu den langile motaren ezaugarriak ere zehaztu zituzten: gaztea, lanean keria gutxikoa, langilea, zintzoa, sormen eta ekimen handikoa, aurrera egiteko gogoia duena, idealak dauzkana eta abar. Argi utzi zuten, halaber, egun-

go lantegietan erdi mailako teknikarien lanak gero eta gehiago automatizatuta daudela, eta aurrerantzean prestakuntza handiko langileak beharko direla. Gainera, lantegiko funtzioak anitzak direnez, langileak asko jakiteaz gain, denetatik zerbait jakitea ezinbesteko izango du.

### **BIDEOKONFERENTZIA ETORKIZUNEN LAN TRESNA**

XXI. mendean, hala ere, gauzak askoz gehiago aldatuko dira. 1998. urtean telekomunikabideen desentralizazio prozesua burutuko da eta satelitez jositako egungo da gure ingurua. Iraultza basatizat jotzen dute adituek aldaketa. Informazio taldeen inguruan antolatutako enpresa mota deiturikoa jarriko da orduan indarrean, eta bideokonferentzia izango da etorkizuneko lan tresna. Hau da, ordenadorearen aurrean kamera jarri, kodifikatu eta sare bitartez munduko edozein tokitara igorriko da, eta edozein puntutatik jasoko da irudia, behar den informazioa duela. Baliabide horren bitartez enpresa batek ez ditu zertan langile guztiak kontratu beharrik izango; beste enpresa mota horiek subkontratatu ahal izango ditu. Eta gainera sare telematikoen bitartez hainbat eta hainbat herritan hasiak dira dagoeneko lanean, eta Europako herriek nekez egin ahal izango diote aurre beste herri batzuetako kostu merkeei.

Gaur egun Espainian, eta baita Euskal Herrian ere, hiru herritarretatik bat lanik gabe dago, gizartean integratu gabe. Zehaztapen hori ere egin zen hitzaldian, baina etorkizuneko enpresetan giza baliabideen gestio lanetan adituek ez zuten adierazpen horri buruzko iritzirik eman nahi izan, edo ez zuten jakin. Beste hitzaldi baterako eta beste mahaikide batzuentzako gaia omen.



## EHIZA SASOIA AMAITZEAR

RUFINO EIZMENDI: "GIPUZKOAKO BASOAK BASAPIZTIZ BETETA DAUDE"


Paseko ehiza garaia amaitzear dago. Abuztuan hasi eta hiru hilabetez ehiztariak zozketatutako postuetan bestelako mugarik gabe ehizan egiteko aukera izan dute. Batzuk asteburuak aprobetxatuz inguruko basoetara abiatu dira; beste batzuek oporraldi luzeagoak hartu eta beste paraje batzuetara jo dute. Zaletuen esanetan, egungoak baino egun txarragoak ezagutu ditu ehizak, Administrazioarekin akordietara iritsi ezinda nahiz jende ugari ehizaren aurka agertu izan denean. Gaur egun basoak bete-beteta omen daude, eta ehiza inoiz baino arautuagoa eta kontrolatuagoa dago Rufino Eizmendi billabonatarrek adierazi digunez. Rufino Gipuzkoako Ehiza Federazioko eta ADECAP elkarteko (Ehizaren eta arrantzaren defentsarako Euskadiko elkar-tea) lehendakariordea da.

Abuztuan hasten da ehiza garaia. Irailan eta urrian bete-betean egon ondoren, azaroan postuetan ehiza garaia amaitzen hasten da. Sasoi horretan postuetatik igarotzen den oro egin daiteke ehizan. Usoak, galeperak eta birigarroak izan ohi dira ehizirik ugarienak. Azarotik aurrera zakurra duena bakarrik joan ahal izango da oilagorretara edota basurdeetara. "Neguko ehiza egin ezin duena zer egin ez dakiela gelditzen da -esan digu billabonatarrek- horregatik hutsune hori bete nahian beste aukera batzuk ari gara sortzen". Hain zuzen ere, bertako ehiza ari dira suspertzen: untxea eta erbia, esate baterako. Billabonako lur sailetan Diputazioa orain dela urte bazuk

untxe basatiak hazten hasi zen, eta gaur egun untxeak berez ari dira basoetan hazten. Horrezaz gain, sei eremu kontrolatu antolatu dituzte Gipuzkoan urte osoan ehizan egiteko: Ernio eta Buruntza inguruak dira horrietako bi. Bestalde, neguko ehiza azken urteotan nahiko eskasa izan da benetako neguko eguraldirik ez baitu egin, hala ere aurtengoa ona izatea espero dute ehiztariak, uda beroa izan baita.

### 500 BASURDE INGURU

Rufinok kontatu digunez Gipuzkoako basoak animaliaz beteta daude: basurdeak gora egin du -500 basurde inguru daude gaur egun-, eta irratia belarritik kenduz gero, era guztietako basapiztiak aurki omen dai-



Rufino Eizmendi

tezke bertan. Bestalde, orain dela lauzpabost urte ehiztariak Administrazioarekin ez zeukaten ia harremanik, eta presio sozialak eraginda "ehiztaria ehiztari zela esateaz lotsatu egiten zen". Hain zuzen ere, ehizaren eta arrantzaren defentsarako ADECAP elkarte orduan sortu zen: "Gauzak aldatzen ez baziren urte batzuetan ehiza desagertu egingo zela ikusten genuen", esan digu Rufinok. Ezin ahaztu kontrapasa zela eta ez zela, egun horietan izan ziren ezta-baida latzak.

**"1996EAN  
ARRAZOIA  
EMANGO DIGUTE  
ETA KONTRAPASA  
IZANGO DA"**



1964.  
Zarrakaztelun

Otsaila eta martxoa ingurua izan ohi da kontrapasa garaia. 1989. urtean kontrapasa debekatzen zuen legea jarri zen Euskal Komunitate Elkartean indarrean, eta ehiztariak legearen aurka egiteko antolatzen hasi ziren Frantziako ehiztarien ere-



duari jarraituz. Era ezberdinetako arrazoiak zeuzkaten horretarako: itsasaldean kontrapasa egiteko egon den aspaldiko ohitura, akabatzen zen hegazti kopuru txikia -sei hegazti ehiztariko-, eta beste komunitate eta herrialde batzuetan ez debekatu izana. Geroztik foru aginduen bitartez 1992. urtean bakarrik baimendu da kontrapasa, baina 1996ean ehiztariei arrazoia emango zaiela ziur dago Billaonakoak.

Gaur egun, Rufinoren esanetan, ehiztariak beraiek daukate interesik handiena ehiza behar bezala arau eta kontrola dadin, eta aurrerapauso izugarriak eman direla ziurtatu digu. Orain dela urte batzuk ehiztari izateko azterketa gainditu ondoren agiri berezia eskuratzea eskatu zuen administrazioak. Ehiztariak hasieran ez zuten neurria begi onez ikusi. Gaur egun berriz, legeak ehiztari berriak uxatu ez dituela ikusi dute, eta gero eta jende gazte gehiago ari dela ehiztari egiten. Bestalde, administrazioaren laguntzaz burutzen ari diren baso birpopulaketek oso emaitza onak ari ematen omen dira.

## “ASKOTAN SARTZEN DIGUTE EUSKALDUNOI ZIRIA EHIZA ESPERRUETARA JOATEN GARENEAN”


21.000 ehiztari federatu inguru daude Gipuzkoan. Dena den komunitate bakoitzak bere arauak dauzka eta kanpoan ehizan egin nahi due-

nak bertako baimena lortu behar du. Ez hori bakarrik, Euskal Herrian ehiza egiteko ez dago ordaindu beharrik; bai ordea, Euskal Herritik kanpo. Asko dira gure mugaz kanpo ehiza esparruetara ordainduz ehizan egitera joaten direnak, Huescara, Soriara, Errioxara eta abar. “Hala ere, -esan digu Rufinok- gehienetan ondo baino hobeto sartzen digute ziria, eta esku hutsik itzultzen gara, esparrua hutsik zegoela konturatu ondoren”. Iruzurak ohikoak izan ohi dira.

### EHIZTARI JAIOTZEZ

Ehiztaria ez omen da egiten, jaio egiten omen da. Horixe esan digu Billaonakoak, eta gainera, benetako ehiztaria berez ez omen da urte sasoi honetan tiroak botatzeaz bakarrik gogoratzen: “Ehiztaria urte osoan zehar arduratzen eta gogoratzen da ehizaz: eguraldiari begiratzen dio, kumeak jaiotzen hasi ote diren erreparatzen dio, eta basoetan ibilaldi luzeak egiten ditu ehiza sasoi berria prestatzen”. Gainera, eta Rufinoren esanetan, ehiztariak dira animaliak gehien estimatzen eta ezagutzen dituztenak.

Ehiza zaletasuna zertan datzan galdetu dugu eta ehiztariak ehiza bera baino aurretikoak eta ondorengoak dituela gogoko esan digu Eizmendik: “Aurretik prestakuntza lanak, ondoren elkartean lagunarteko afari gozoa eta ehiza egunean, mendian ibili, zakurra lanean ikusi, “eta



*Txakurra ezinbesteko*

asko eta askotan pieza pare batekin bakarrik itzuli. Horixe izaten da gure egunpasa”, esan digu.

Ekologistek eta ehizaren aurka agertzen direnei buruz ezer esateko-rik ba al duen galdetu diogu: “Ehiza afizioa zaharrenetakoa da, lehen jateko egiten zen eta orain ere bai. Badakigu hiltzea gauza tristea dela. Baina tiro hotsik entzungo ez balitz, ez litzateke hainbesterako izango. Gauza ezezagunek kezka eragiten dute beti, eta askok ez gaituzte ezagutzen”.

Ehiztari gehientsuenak, alde aldiz gainera, gizonetzkoak dira oraingoz. Hala ere emakumeen artean ere arin ari da zaletasuna zabaltzen. Urruti joan gabe, Zizurkilan bertan dauka-gu Euskadiko eta Gipuzkoako ehiztari txapeldua: Modesta Iraola.

**Hiru Anaiak**

**GOZOTEGIA**

**PASTELERIA**

Zumea, 18 ANDOAIN

**FRANCISCO MENDIKUTE**  
**HARATEGIA**



KaleTxiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN



TXERRIKIEN  
BANATZAILE  
ETA EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA

Ama Kandida z/g - 307. Moduloa - ☎ 592923  
ANDOAIN



BILLABONA

## TXIRRINDULARITZA PROFESIONALA AZTERGAI

### IRRINTZI ELKARTEAK ANTOLATUTAKO TXIRRINDULARITZARI BURUZKO I. JARDUNALDIAK

**Gurea antzokian Irrintzi elkarteak antolatutako hitzaldiak eta saioak harrera ezin hobea izan dute herritarren artean. Hitzaldietako batean txirrindularitza jarraitzen duten kazetariak eta txirrindulari profesional gazteak bildu ziren txirrindularitza profesionalari eta txapelketei buruz hitz egiteko. Xabier Usabiaga asteasuarrak egin zituen aurkezpen lanak eta entzuleek gogoz hartu zuten parte hizlarietara guztietako galderak eginez, eta iritziak emanaz.**

Munduko txapelketan izandako Migel Indurain eta Abraham Olanoren arteko balizko lehia, Espainiako taldeen egoera, txirrindularitzari buruzko kazetaritza eta Euskadi Fundazioa izan zituzten hizpide hizlariak: GEWISS talde italiarreko Jon Odriozola oñatiarra, BANESTO utzi berri duen eta ONCE taldeko partaide berria den Itsasondoko Aitor Garmendia, POLTI talde italiarreko Pasaiaiko Iñigo Chaurreau gaztea eta Tito Irazusta, Benito Urralburu eta Dani Egaña kazetariak.

Guztiak bat etorri ziren Munduko Txapelketan A. Olanok behar bezala jokatu zuela esatean, eta Nafarroako komunikabideetan batez ere, plazaratutako M. Indurainekiko "traizio" aipamenak zentzugabeak eta bidegabeak izan direla. "Indurainek egin beharrekoa egin zuen -esan zuen B. Urralburuk- *une hartan talde lana egitea zegokion, eta balaxe egin zuen, beretzat beste batzuek lan egiten dutenean bezalaxe*". "Ez dago gainera, esaterik -gaineratu zuen T. Irazustak- *bestela lasterketa Indurainek irabaziko zuenik. Bestalde, A. Olano helmugara iristean M.Indurainen poz adierazpenak garbi utzi zuten haren gogo*". D. Egaña Indurain jarraitzaile askok bere jarrera ez zutela ulertu zehaztu zuen, baina benetan txirrindularitza ezagutzen dutenengan ez zela horre-

lakorik gertatu. Edozein eratako kritikak egiteko taldeari emandako aginduak zeintzuk ziren jakin behar dela zehaztu zuen I. Chaurreau-k, eta ez dagoela kanpotik kritikazterik. Orain arte M. Indurain taldekide izan den M. Garmendiak bakarrik zehaztu zuen, A. Olanok hartu zuen erabakiaren moduko erabakirik hartu aurretik, berak Induraini galdetuko ziola.

#### INDURAIN JOANDAKOAN, ZER?

T. Irazustak M. Indurainek hurrengo Tour-a irabaziz gero, txirrindularitza utziko duen iritzia dauka. Eta BANESTOn, arrazoi bategatik edo bestetik, txirrindulariak joaten ari di-

rela, baita medikua ere. M. Indurain joan arren, BANESTOn oraindik ere txirrindulari onak geratzen direla zehaztu zuen B. Urralburuk. M. Garmendiari galdetu zitzaion BANESTO uztearen arrazoiak, eta ONCE taldeak eskaintza hobea egin diola, eta ONCE etorkizun hobeko taldea izan daitekeela argitu zuen. Hala ere, M. Indurainen jokabideak taldean eragin handia duela ezin izan zuen ukatu. A. Olano, txirrindularitzako hurrengo liderra izan daitekeela adierazi zuen J. Odriozolak.

Espainiako taldeak eta ospe oneko italiarrak alderatuz nor bere iritzia eman zuen ondoren. Italiako taldeetan urtebete egin duten J. Odriozolak eta I. Chaurreauk berretsi zuten esperientzia oso ona izan dela eta Italiako taldeetan antolaketan eta prestakuntzan alde handia dagoela: Espainian ez bezala entrenatzailea arduratzen da gertutik txirrindularien



Hizlariak



prestakuntzaz. M. Garmendiak ONCE taldean Manolo Saenzen pres-taketa berezia nabaritzen dela esan zuen. Dena den, normalean txirrin-dulariek alde zuretik egutegia era-bat zehaztu gabe entrenatzen dutela argitu zuen, eta askotan eragozpen handiak izaten dituztela.

## EUSKADI FUNDAZIOA

Euskadi Fundazioaren helburu eta asmoa ez zuen inork gaitzetsi; alderantziz ideia ederra zela adierazi zuten guztiak. Ederra izan arren, ez oso errelista ordea. 6.000 bazkidez osatutako erakundeak eta etxe komertzial garrantzitsuren baten baba-sa eduki gabe, beste talde handien parean jartzea ezinezkoa izango zaiola adierazi zuten, eta *Tour*-era joateko nahikoa lan izango duela.

## EUSKADI FUNDAZIOAREN ASMO EDERRA, BAINA IKUSPEN IRREALA

Txirrintulari gazteak prestatzeko hasiera ona izan omen daiteke, bai-na beti gertatuko da B. Urralbururen esanetan, Iñigo Cuestarekin gertatu den bezala: ongi prestatu ondoren, taldea utziko duten txirrintulariak

izango dira. Dena den, taldeari lagun-tza eman behar zaiola pentsatzen dute guztiak. M. Indurrainek Euska-di Fundazioan korrika egitea onar-tuko ote zuen galdera bota zuen T. Irazustak. Jakina, Indurain bera ez ze-goenez, espekulazioak egiteaz gain, inork ez zuen erantzunik ematen ja-kin.

## KAZETARITZA

Txirrintularitzari buruzko kazeta-ritza ere aipatu zen, eta guztiak ai-tortu zuten, orain dela urte batzuk afi-zionatu eta gazte mailako txirrin-du-

laritzari arreta handiagoa eskaintzen zitzaiola. Baina gaur egun komunika-bideen artean dagoen lehiaren ondo-rioz, albiste diren gertakarietaz ardu-ratzera behartuta daudela. Dena den, Espainiako gainontzeko herrialdee-kin alderatuz, Euskal Herrian punta-puntakoak ez diren txirrintulariei ematen zaien oihartzuna nahikoa handia da, afizioa ere oso bestelakoa omen da. Bukatzeko ziklo-krosen gainbeheraz hitz egin zen, eta adituek diotenez federazioa bera omen da gainbeheraren erantzulerik nagusia.



## ANDOAIN

EUSKALDUNA MENDIGOIZALE  
TALDEAK ANTOLATUTAKO

## XXXIII. MENDIZALE ASTEA

**Azaroak 17:**

**Iñurtegi anaiek** aurkeztutako diapositiba emanaldia: **Cho Oyu, Lhotse espedizioa.** La Salle-Berrozpe ikastetxeko areto nagusian 20.00etan.

**Azaroak 18:**

**Luxio Aranburuk** aurkeztutako diapositiba emanaldia: **Erromes bi-dea.** Kultur Etxean 18.00etan.

**Azaroak 19:**

Mendi irteera: **Andoain-Andazarrate** 9.30etan. **Babarrun jana Izur-tzu jatetxean** 14.00etan.

**ALFARO**  
JATETXEA  
EGUNEROKO MENUA  
Etxeberrieta auzunea  
☎ 59 40 27 **ANDOAIN**

LOATZO ASEGURUAK - ASESORIA  
**ZURE ETORKIZUNA  
BIZI ASEGURUA**  
JOXERRA GARMENDIA MUJIKA  
IBON GARMENDIA UGARTE  
Antxin kalea, 3 behe - ☎ 69 39 13 - Faxe 69 38 43 BILLABONA

**LANBIDE EZBERDINEN  
ARTEKO KOORDINAKETAK**

**GASA ETA BEROGINTZA**

KALE NAGUSIA, 59 - ☎ 59 38 44  
ANDOAIN

- ITURGINTZA
- GASA
- BEROGAILUAK
- ELEKTRIZITATEA
- IGETLSARITZA

**MIRARI**  
ILEAPAINDEGIA  
ELIZONDO PLAZA, 2  
☎ 590162 **ANDOAIN**



## BILLABONAKO LOATZO MENDI TALDEA. 1965.



**Aizkardi mendi elkarteko Fernando Garmendiak, Jose Luis Zalduak eta Gillermo Alustizak** lagundu digute argazkian agertzen diren mendizaleen izen-deiturak osatzen.

Argazkia **Alkizan** eginda dago eta urte osoko mendi ibilaldien ondoren, azken egunean egiten zuten ibilaldi-ospakizuneko da argazkia. Egun horretan dominak jartzen zizkieten urte osoan prestatutako gailur guztiak egindako mendizaleei eta egunpasa polita antolatzen zuten, bide batez. Horrelakoetan ohikoa izan ohi zen Migel Mari Cardoso eta Jose Luis Zaldua txislulariak beraiekin eramatea giroa alaitzeko.

**Loatzo kirol elkarte**a desegin ondoren, sortu zen 1974. urtean **Aizkardi mendi elkarte**a. Loatzo kirol

elkarte, gainera, ez zen mendi elkarte soil-soilik izan, Billabonako kirol ekitaldi gehientsuenak antolatzen zituen: txirrindularitza, xakea, *ping-pong*-a, mendi ibilaldiak eta abar, hala nola kultur ekitaldi ugari.

**Zutik ezkerretik eskuinera:** Xabier Azurmendi, Arantxa Sorondo, Felipe Cantero, Migel Zendoia, Juan Jose Alkorta, **Gillermo Alustiza**, Joxe Mari Zinkunegi, Marilali Gutiérrez, Jose Ignazio Alonso, **Jose Luis Zaldua**, Gregorio Ugartemendia, Arriaga, Enrike Gandoa, Tomas Usabiaga eta Migel Mari Cardoso.

**Makurtuta ezkerretik eskuinera:** Mariaxun Lizarraga, Marimar Alkorta, Gloria Gutiérrez, Elena Artola, Mertxe Garmendia, Maria Luisa Ruiz, Joxemiel Elola eta Dexi Beraza.

OCTAVIO CANORA

Dr. Huizi, 8 behea  
ANDOAIN

# PAPIRO

KALITATE HANDIKO  
KOADERNAKETAK

**Txuri Beltz**  
Taberna

KALE BERRIA, 9 ANDOAIN TELF. 59 35 49

**AUTOEN MEKANIKA OROKORRA**  
**ZABALAGA TAILERRAK**

Ama Kandida Etorbidea. DENAC Poligonoa, 203. Pabeloia  
Telefonia 30 01 69 ANDOAIN



## IGOR GARMENDIA

**BILLABONATARRA; 20 URTE  
EUSKALDUNON EGUNKARIAREN  
BANATZAILEA ANDOAINEN ETA  
BILLABONAN**



- **Zenbat harpidedun daude bi herrietan?**

- 81. Orain bi herrietan harpidetzak lortzeko kanpaina egiten ari gara egunkariaren itxura eraberritua aprobetxatuz. 120era iristea espero dugu. Zizurkil eta Asteasu aldera ere zabaldu nahi dugu. Hala ere, orokorrean, euskaldunak ere oraindik ez daude Euskaldunon Egunkaria erosten obituta; "bigarren egunkaria" izaten jarraitzen du oraindik.

- **Tabernariak egin al dira harpidedun?**

- Andoainen batzuk bai; Billabonan gutxi.

- **Jendeak ezer komentatu al dizu berrikuntzari buruz?**

- Gauza handirik ez: itxura hobe daukela, besterik ez.

- **Nola eta ze ordutan egiten duzu banaketa?**

- Kotxez egiten dut. 6.30etan hasten naiz, eta 8.30etarako bukatu dut. Andoainen jasotzen ditut egunkariak eta Billabonan bukatzen dut ibilbidea.

- **Horren goiz?**

- Bai, askok lanera joan aurretik jaso nahi izaten dute.

- **Atean jotzen ibiltzen al zara ordu horietan?**

- Ez, etxe batzuetako giltza badaukat, eta beste batzuetan ate azpian uzten dut.

- **Zuk egiten duzun zerbitzuak ze abantailak dauzka?**

- Erosotasuna, zalantzarik gabe; etxetik irten gabe goizean goiz egunkaria irakurtzeko modua dauka jendeak.

- **Zenbat denbora daramazu lan honetan?**

- Urtebete pasatxo.


- **Lan gogorra al da?**

- Ordutegia da nabikoa txarra, asteburuetan batez ere. Arratsaldean siesta egiten dut, eta aurrera. Lotura ere bada, baina ongi...

- **Arazorik izan al duzu inoiz?**

- Ordu horietan Ertzantzaren kontrolen batean geratu izan naute, baina gainerakoan ezerrez.

## PERTSONAIA EZKUTUA



**Pertsonaia ezkuta** izeneko atal honetan saio berri bati ekingo diogu, hau da pertsonaia berria eta sari berria, baina ohiko lehiaketa. Oraingo honetan **Billabonako Basajaun liburudendak** eskaini digu oparia, **1996. urterako agenda paregabea, ekologikoa**, urte berria asmo eta egiteko berriez bete dezazun.

1996

Pertsonaia berriari dago-kionez, aurrekoak bezain ospetsua eta ezaguna dela aurreratzen dizuegu. Badakizue, lehiaketan parte hartu nahi baduzue, bidal ezazue gutuna Andoaingo Doktor Huizi kaleko 15. zenbakira. Eta zorte on!



**TESTU LIBURUAK**  
(O.H.O. - B.B.B. - L.H. - ea)

**ESKOLARAKO OSAGARRIAK**

**JOKO DIDAKTIKOAK**

**IRAKURKETARAKO LIBURUAK**

**ALDIZKARIAK**

**PAPERDENDA**

KALE NAGUSIA, 29 ☎ 69 16 51

**B I L L A B O N A**

**Joxe Ramon**

**Taberna**

**PINTXO EDERRAK !!**

KALE NAGUSIA, 16 - ANDOAIN

**BENITO**

HARATEGIA  
URDAITEGIA

KALE NAGUSIA, 22 ☎ 69 11 49

ARROA KALEA, 4 ☎ 69 13 50

BILLABONA

**Joxe Mari  
ITURRALDE**

**ZURGINDEGIA**

Formika lanak, sarrerako eta barruko ate mota guztiak eta edozein zurgintza lan.

ADUNA - ☎ 69 20 81



# Agenda

## IKUSENTZUNEZKOAK

### ADUNA

**Azaroak 28:**

“Euskadi-Txina” diapositiba emaldia 15.00etan eta 19.30etan Kultur aretoan.

**Abenduak 1:**

Gazteentzako filmea 19.30etan Kultur aretoan.

## ANTZERKIA

### ANDOAIN

**Azaroak 18:**

Taun-Taun antzerki taldearen emaldia La Salle-Berrozpe ikastetxean 20.00etan.

**Azaroak 19:**

Haurrentzako txotxongilo saioa La Salle-Berrozpe ikastetxean 17.30etan.

## HITZALDIAK

### ANDOAIN

**Azaroak 28:**

Karlos Olaetxeak Buruntzako kastroko indusketa lanei buruzko hitzaldia 19.00etan Kultur Etxean.

**Azaroak 23:**

“Trenbidea Hego Euskal Herrian”, HBk eginiko proiektuaren aurkezpena Kultur Etxean 19.30etan.

### LARRAUL

**Azaroak 28:**

“Eta bihar ze eguraldi?” deituriko hitzaldia eskainiko du Pello Zabala adituak 19.00etan Kultur aretoan.

## MENDI IRTEERAK

### ANDOAIN

**Azaroak 26:**

Euskalduna mendigoizale taldeak antolatutako ibilaldia: Leitza-Aritz (1.040m)-Ireber (1.204m)-Otsola Berueta. 6 orduko ibilaldia.

## ERAKUSKETAK

### ANDOAIN

**Azaroak 5 - Abenduak 19:**

“Kixmi, euskal mitoen amaiera” Kultur Etxean.

## IKASTAROAK

### ZIZURKIL

Emakumeentzako tailerra: Azaroaren 24ean amaituko da emakumeentzako tailer sortu berriak antolatutako zerbitzari-sukaldari ikastaroan parte hartzeko izena emateko epea. Ikastaroa abenduaren lehenen hasiko da, eta zortzi zizurkildarrek baino ezingo dute parte hartu.

## BESTE

### ANDOAIN

Abenduan euskal musika eta kantu tradizional emanaldiak: musika edota euskal kantu tradizionalerako zaletasuna duten taldeen gogoia bideratzeko eta bultzatzeko asmotan batetik, eta kaleko giroa biziagotzeko bestetik, kantu emanaldiak antolatzeko deialdia egin du Kultura batzordeak:

- 1- Taldeek 4 partaide edo gehiago izango ditu eta erdiak gutxienez andoaindarrak behar dute izan.
- 2- Taldeko partaideen gutxieneko adina 16 urte izango da, gorako mugarik gabe.
- 3- Musika edo kantu tradizionalerako, gutxienez, 12 pieza edota kantuz osatutako programa aurkeztu behar dute.
- 4- Programa hau Andoaingo kale edo enparantzetan abenduak 9, 16 eta 23an eramango da aurrera. Talde gutxi baleude, abenduak 23an bakarrik egingo litzateke.
- 5- Aurkeztutako talde bakoitzari Udalak 20.000 pezetako laguntza emango dio eta emanaldi garaian txapela edota poltsa jartzeko baimena.
- 6- Eskaera orria Kultur Etxean jaso eta beteta aurkeztuko da azaroak 6tik 17ra bitartean.

## BILLABONA

### AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEA

Migel Zalakaini omenaldia


**Azaroak 26:**

Omenezko monolitoaren inaugurazioa Belabietako parajeetan 12.00etan. Txalapartariak eta bertso-lariak izango dira.

**Azaroak 30:**

Hitzaldia: “Espetxeetako errealtatea”. Hizlariak: Iñaki Azkarate eta Juan Mari Etxeberria preso ohiak, Oscar Castejon mediku naturista eta Amnistiaren Aldeko Batzordeko partaide bat.

## KOMIKIA







BETERRIKO ALDIZKARIA

# AIURRI

UDALEN BABES ETA

LAGUNTZAREKIN

M. LARRAMENDI KULTUR  
BAZKUNAK ARGITARATZEN DU





## Azaroak 26, igandea

### Aiztondo bailaran zeharkaldia:

Irteera goizeko 7:00tan  
Abeletxetik. Iraupena: 6-7  
ordu. Irekia denontzat.

### Larunbata 25, orientazio ikastaroa:

Goizean teoria eta  
arratsaldean zirkuito  
praktikoak




**Abeletxe**  
a t e r p e a



Zarate bidea Tel.: (943) 69 39 83  
20159 Zizurkil (Gipuzkoa)

**Ziztu**  
garraioak



**EGUNEROKO ZERBITZUA**  
**PAKETEAK**  
**DOKUMENTUAK**

☎ 908 - 77 60 10  
☎ 69 39 18

**DONOSTIALDEA**  
**TOLOSALDEA**  
**GOIERRI ALDEA**

Boutique  
**ARAGAR**

Gizonezko nahiz  
emakumeentzako jantziak



**PREZIO**  
**BEREZIAK**

Elizondo plaza 1 - ☎ 59 23 09 - ANDOAIN



*ogi berezi eta  
artesanuak  
...  
etxerainoko  
zerbitzua*

**OGI ZURI**

OKINDEGIA, S.L.

Lizarra-etxea, 32 / Elizmendi auzoa.  
20159 ASTEASU / ☎ 693294 - 691896

**OGI · GOXO**



- TARTAK • IJITO BESOA • PASTELAK
- TEILAK-ZIGARRILOAK
- HOJALDREAK • MAGDALENAK

Kale Nagusia, 26 - ☎ 693294 - BILLABONA